

Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Zk-3764

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko aginduarena: «AGINDUA, 2003ko maiatzaren 15ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, merkataritzako zabalkunde- eta informazio-jardueretarako diru-laguntzen emakida arautzen duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.2 a) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak testua argitaratzeko agindu duten organoek zuzenduko dituzte, baldin eta nabarmenak badira, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratzeko aginduko dute.

Merkataritzako zabalkunde- eta informazio-jardueretarako diru-laguntzen emakida arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko maiatzaren 15eko Agindua 2003ko maiatzaren 28an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (103 zk.) eta bertan aipatutakoen moduko hutsak ikusi direnez, dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

4.4 artikuluko d) idatz-zatian, 9629. orrialdean, honakoa dioenean:

«Jarduerak laguntza eskatu den ekitaldi ekonomiko berean eta eskaera-epea amaitzen denetik aurrera garrantzea.»

Honakoa esan behar du:

«Jarduerak laguntza eskatu den ekitaldi ekonomiko berean garrantzea.»

Zk-3765

AGINDUA, 2003ko maiatzaren 30ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena. Honen birtutez, ADEFIN programa (industriako enpresa ertain eta txikien finantza-egitura moldatzeko laguntzena) garatzen da.

Egoera egonkorra denean eta ekonomiek hazkunde jarraitua dutenean, finantza-egitura desegokia ez da funtsezko faktorea enpresen iraupenerako. Izan ere,

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Nº-3764

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Orden de 15 de mayo de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas destinadas a diversas actividades de divulgación e información comercial.

El artículo 24.2 a) del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

Advertido dicho error en el texto de la Orden de 15 de mayo de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas destinadas a diversas actividades de divulgación e información comercial, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 103 de 28 de mayo de 2003, se procede a su oportuna corrección

– En el artículo 4.4, apartado d), página 9629, donde dice:

«Que se desarrollen a lo largo del ejercicio económico de la solicitud de ayuda y siempre a partir de la finalización del plazo de solicitud.»

Debe decir:

«Que se desarrollen a lo largo del ejercicio económico de la solicitud de ayuda.»

Nº-3765

ORDEN de 30 de mayo 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el programa ADEFIN, de ayudas para la adecuación de la estructura financiera de las PYMES industriales.

En una situación estable y de crecimiento sostenido de las economías, la inadecuada estructura financiera no es un factor crítico para la supervivencia de las empre-